

Lasaituaz, umiliazioz, izu-ikaraz, ulertu zuen bera ere itxura bat zela, beste norbait ari zela bera amesten. J. L. Borges

Ez dira erabat gureak. Zuek asko zaindu, elikatu, makillatu, osatu, lazandu, musukatu, pornografiatu eta gainerako guztia egin arren, gorputzak gureak dira, baina ez dira erabat gureak. Eta hor historia politika bilakatzen da.

Judith Butlerrek gizakiaz egindako deskribapen iradokitzaile batean dioenez, «lehenik eta behin besteari entregatuak» gara¹, norbanakotzea baino lehenagotik ere beste batek aurredefinitzen gaitu, eta horren ondorioz iristen gara «gure gorputzen zaurgarritasunera». Aurredefinituak geratzen gara, gizarteak guregandik espero duena sinbolikoki egiaztatzeko modua den aldetik gorputzari dagokionez: organismo bat, irudi bat, sexu bat, adin bat, *aurpegi*² bat, genero bat, diskurtso bat... Baina horrek ekartzen du nola *izatearen* irentzea hala «sostengu fisiko sozial» bat³. Levinasentzat⁴, ez besteari aurre hartzeak, bestea topatzeak baizik instalatzen du aldi berean norberarengan bestearen erantzukizun bat (eraikuntza bat besterengan), halako moldez, non subjektuak bestearen erantzukizuna baitu bere existentziaz kontzientea izan aurretik ere.

Baina ez ezazue uste dena errazagoa denik suposatzen dugunean gure gorputza erabat gurea ez dela, «adierazten duena» adierazten duela besteekiko erlazioan testuinguru soziokultural jakin batean, eta ez ezazue uste ere konpromiso pertsonal oro ezeztatzen denik. Zuribide hori balioztatzeak ez du ekartzen amore ematea, borondatea jito komunitarioan uztea, gure erantzukizuna eraketa subjektiboan, haren balio kolektiboan lagatzea. «Bestearen» balioaren kontzientzia hartzea prozesu identitario eta subjektiboetan lehen urratsa izango litzateke gorputza aztergai bihurtzeko eta geure burua haren eraldatzearen agenteak aldarrikatzeko; horrek dakar zalantzan jartzea garen hori, ez emana datorren zerbait bezala, indibidualki eta soziokulturalki aldatua gertatzen den zerbait bezala baizik, eta horrenbestez aldatua izan daitekeena, ez soilik material eta bioteknologikoki, esanahi eta balio sozialen alorrean baizik. Tesi konstruktibista horrek ondorio gisa dakar ekintza politiko batek gorputzen produkzio prozesuak neurri batean agerian utzi, ulertu eta bereganatu egin ditzakeela. Ez dago argi, ordea, gorputza ikusgai uzteko, berradierazteko edo are «desadierazteko» moduaren eraginkortasuna; zein neurritan den posiblea besteentzat, norberaren gorputzarentzat besteek ere osatutako norberaren gorputzetik, zein neurritan bihurtu dezakegun arte praktika feminista eta queeretan hain ohikoa izaten den aztergai bihurtze hori pertsonen bizitzatik haratago doan politika sozial.

-.). (gorputzak) -konektatu-egin-desegin

Orduan, geure gorputza izango dugu abiapuntu, bere ikusmoldeak, bere irazki identitario eta sozialak eta bere asmo subjektiboak dituen *eraikuntza sinbolikoa*⁵ den aldetik. Parentesi bat egin eta neure gorputzari begiratuko diot. Mila patina eta ikus-irazki identifikatu nahi ditut, eta hartara neure diskurtsoa kokatu (...) Ez da erraza eta ia etsita nago. Hainbat eta hainbat lastra jada normalizatuak. Baina kontsolatu egiten nau zuenak baino gehiago ez direla izango pentsatzeak, eta horregatik zuekin batera galdera egingo diot neure buruari haien inguruan (...) Erreparaiezue zuenei -zuen gorputzei-: zuen aurpegiei, ileari, sabelari, ernalkinei, hankei, perforazioei, gorputz-apaingarriei, soinekoei eta zergatik ez? zuen pantailei (izan ere, ez al dira bada gure gorputzekin interfazean aritzen eta era liminarean mihizatzen online harremanetan?). Erreparatu zuen kulturari gorputzetan. Soinekoei, haiek ere gorputza baitira eta gizakiari izatea erabaki duen hori izatea ahalbidetzen diote, «baita (gogoratzen zuen Barthesek Sartre parafraseatuz) izatea erabaki duena besteek bere lekuan aukeratu dutena denean ere»⁶ (...) Eta pantailei ere, gorputzari lotutako ziberespazioaren nodo materialak diren aldetik; pantailek ez gaituzte janzten bakarrik, konplexutasun berri bat ere ekartzen dute, gorputzetik bereizitako nortasunak sortzen laguntzen dutelako, gorputza geroratuta geratzen baita, eskuarki ezkutatuta, gure online harreman pertsonaletan. Gorputza ikusezin bihurtzeko eta gure presentzia arintzeko aukera horiek, anonimatu birtualak ematen duen balio erantsiarekin, lurralde iradokikorra zirrimarratzen dute gogoeta egiteko interneteko gorputzaz, post-gorputzaz edo ez-gorputzaz, nahi duzuen bezala, testuingurua berbera da eta haren gainean jardungo dugu jarraian.

Honen asmoa ez da izango ordenagailu pantailez eta ziberespazioaren bidezko gorputzaren berradierazte posible baterako gakoak ematea, ezta haien erabileraz orientatzea ere gorputza ikusgai egiteko edo hartatik eratorritako eskari politikoetarako. Asmoa zuzenduko da gure buruari galdetzera pertsona-pantaila tandemak diharduen zirkunstantziez eta haren aukera dekonstruktiboez bai eredu heteropatriarkal eta kontserbadoreek irauteko aukerez ere. Sareak zer sustatzen duen eta zer ahal duen.

Mundu birtualean «ni»aren irudien aniztasunak guretzat ezezagunak diren alderdiak aurkitzea eta haiekin jolastea ahalbidetzen du. «Ni»aren eta «gu»aren produkzioaren arbitrariotasunaren esperimentuan sumatzen da orobat *korrespondentzia*⁷ bat formaren eta edukiaren artean, gorputz sozialaren eta gorputz fisikoa sumatzeko moduaren artean. Hartara, mundu birtualean egindako genero irudikatze orok gorputza hartuko luke barne nahitaez.

Internetek gorputzaren askapen eta atsedenerako lurralde moduan funtzionatzea ziberespazioan ikusi eta praktikatu egin dezakegun gauza da. Baina hori potentzial dekonstruktibo handiago bat ahalbidetzen duten zirkunstantziak dagozkion lurraldea izatea gutako askok ohartarazten genuen interneten lehenbiziko urteetan; gaur egun, ordea, horri zenbait xehetasun gainera dakizkioke.

Alde materialetik has gaitezen: «bazen behin gorputz bakar bat sarera lotutako ordenagailu baten aurrean». Demagun gorputz hori zure gorputza dela eta pantailari begira zaudela. Pertsona ezezagun horrekin harremanetan jarri baino lehen, isiltasunean galdetzen duzu: *Nor zara?* Ezin zara galdera egin gabe geratu. Galdetzean aurre egin beharko diozu ez bakarrik bestearentzat duzun formulazioari, baita zure buruarentzat duzunari ere. Bestearentzako ohiko erantzuna berehala iritsiko da, eta ziur aski izango da ezagutu baino lehen, Hannah Arendtek iradoki bezala, dakiena sendotzea behar duena. Arendtentzat zalantza horri emandako erantzunak aurreiritzia finkatu ohi du komuna denaren errepikapenean. Lasaitzen duen hori «izatea»; sozialki espero izaten dena izatearen ekintza performatiboa, alde aurretik zentsuratuz bestelakoa dena, bakana.

Benetan bere gain hartutako existentzia orok norberaz gogoeta egitea badakar, eta garen horren eraikuntzan erabakiak hartzea, ez dugu ahaztu behar askatasun horrek ahalegin bat eskatzen duela, identifikazio tradizionalaren aurrean amore ematera bultzatzen gaituen lasaitasun identitario soziala asaldatzea; gure aurrean agerian geratu baino lehen jada identifikatu eta sozial eta lasaigarriro kokatzen gaituen hori izatea.

Alabaina, pantailaren aurrean gorputza blindatu egin daiteke, eta guretzako erantzunak mugiarazi egin dezake baieztapen hori galdera ikur batera, eten puntu batzuetara, dakiguna sendotzea nahikoa ez balitz bezala, oraindik ere posiblea balitz bezala geure burua ez engainatzea. Horrela posibilitate eta dibergentzia segida bat sortzen da.

Mozorroa erantzi dut... (pantaila honen aurrean niago izan naiteke). Naizena naiz ni... Asko naiz ni... (ni-jendetza). Ni naiz ni, ni txit erraldoia. Neure burua asmatzen dut... (izatera jolasten naiz). «Andrea... gizon bat zara» (Orlandoren oihartzuna). Eta mila eten puntu norberarentzat...

Argi dago kasu guztietan erantzuna «ohikoa» izan ahal izateak gakoak ematen dizkigula ulertzeko ez dagoela mugatuta, kontingentea dela eta ez dagoela gorputzetan idatzita, birkodegarria dela eta askotarikoa izan daitekeela. Egia bada ere erantzun hori aldatu ahal izateak ez duela aldatuko dela bermatzen, ezta nola aldatuko den ere. Hori bai, galdera (*nor zara?*) gertatzen den unearen zirkunstantziak ezagutzeak gako gehiago eman diezazkiguke haien erantzunak ulertzeko.

Konektatutako subjektuaren ohiko egoera markatzen duten baldintzetako bat -haren zirkunstantziak- ekipamendu informatikoaren interfazaren banakakotzeak ezartzen du, sarbiderako bakardadea markatzen duena. Sartzearen inguruko zirkunstantzia horiek ez dira neutralak erantzun identitario posibleari dagokionez. Intimitateak geure baitara bihurtzen gaitu, *izateko* desiraren eta ez izanaren, ez izatearen porroten aurrean jartzen gaitu. Baina intimitateak beti profilaktikoa den harreman bati dagokion lasaitasunean ere kokatzen gaitu, zenbait gauzetatik urrun beti: arrisku materialetatik, esandakoaren erantzukizunetik, kutsaduratik, gaixotasunetik, sorraraztetik, konpromisoetik, eguneroko bizitzaren eta haren arau kolektiboen erreprodukzioetik, baina inoiz baino gehiago desirak aginduta.

Bakardadeak erabakitzen du makinaren eta subjektuaren arteko edo makina bidez subjektuen arteko aliantza intimoa. Milioika pertsona konektatuta, milioika pertsona bakar beren geletan. Era saihetsezinean, irudi horrek beti ekartzen dit gogora Walter Benjaminek irratian estreinako aldiz parte hartu zuen aldiko pasadizo hura, online esperientziaren inguruko gure gogoetan egokia izan daitekeena. Irratsaio hartan parte hartu baino lehen bi ohar egin zizkioten, bata denboraren kontrolaren ingurukoa, eta bestea entzuten egon zitekeen jende motaren ingurukoa: «hasberriek (...) oker uste izaten dute hitzaldi bat eman behar dutela zenbait jenderen aurrean, nahiz eta une horretan haiek ikusezinak izan. Erabat oker daude. Irratentzulea bakarra izaten da gehienetan, eta milaka batzuk entzuten egongo direla onartuta ere, beti izango dira milaka gizabanako (...) pertsona bakar»⁸. Irratentzuleak bezala, konektatutako gorputzak gorputz bakarrik izaten dira ordenagailuaren aurrean, eta pantaila bakoitza batentzat bakarrik izaten da, nahiz eta jende multzo handia interkonektatuta egon. Telebistaren pantaila, ordea, taldean ikus daiteke, eta ahulduta mantentzen du ikuslea behaketa erlaxatuago batean. Bizitegi guneetara iristen den medio gisa, bere eredu errepikakor lasaigarriez zuzenduta dagoen komunitateen kideen segurtasun sentipena sendotzen duena, entzuten eta ikusten dugunak kokatzen gaituen

lekuan gure burua kokatuz. Badira pertsonak telebistako albisteak entzuten dituztenean pasiboki sentitzen dutenak denbora horretan beren etxea ez dela erabat beraiena: diskurtsoaren argitasuna, baieztapenen irmotasuna, informazioaren erabilera, garrantzia duenaren hierarkizazioa... Interneteko loturaren bakardadean dena bestelakoa da, online pasierak ez du aukerarik ematen horren erraz gure etxearen jabe egin daitezten, pantailatik kanpo gaude gu, baina barruan ere bai. Loturaren bakardadean «etxera itzultze» mitologiak mundutik babestuta, baina «munduan» sentitzen garen lekura eraman zaitzan utz dezakezu; han itxuraz gorputz pasiboa duen subjektua aktiboa da, gurea den zerbait mugitzen da, izan daiteke kurtsore zalantzati bat bilatzaile baten laukitxoan edo gezi bat, pantailan, eta, hartara, munduan kokatzen gaituena.

Baina itzul gaitezen gorputzera, gorputz konektatura eta aipatu ditugun bakardade egoera horretan pantailan sortzen den identitate liminarera. Mugak berez funtzio definitzailea dauka, baliotsua, zaugarria, bestea den horretatik bestelakoa baina berez lotua den zerbait kokatu eta aldi berean babestu egiten duena. Haren bereizgarria izango litzateke lekualdatze bat gertatzen dela, online izan-egon nahi bat, agente gisa inplikaturata bakarkako egoeran. Halako moldez, non lekualdatze fisiko batean gorputza subjektu aktiboa baldin bada, kasu honetan badirudi gorputza ez den guztia ari dela jardunean, mugimendua bizitzen. Pasiera birtual horretan badago liminaretik zerbait, Turnerrek aipatzen zuen *liminaltasunetik*⁹, erromesaldiez eta igarotze erritoez ari denean, zinena jada ez zarenean baina oraindik pertsona berri bat ez zarenean pasatzen zaren egoera oraindik definitugabe hori definitzeko.

Liminaltasuna ez da bakarrrik trantsizioa, potentzialtasuna ere bada; ez da bakarrrik «izatera iristea», baita «izan daitekeena» ere, adierazkortasunezko esparru bat zeinean egitura sozialaren normaltasunaren egumeroko eragiketetan agerikoa ez den guztia -dela errepresio sozialarengatik edo kognitiboki ikusezin egin delako itzal handiko ukazio paradigmatico bat dela medio- objektiboki aztertua izan baitaiteke, haren edukien izaera sarri metaforiko eta iheskorra gorabehera.¹⁰

Aurre-identitate egoera horretan interneten izatera iristen zarena «bilaka zaitezkeenak» alde aurretik mugatu badezake ere, gorputza eta haren zaugarritasuna behin-behineko alde batera uzteko aukerak subjektibotasun politikoarentzat erabilgarria izan daitekeen esperimazio identitariozko eszenatoki berri bat marrazten du. Ideia hori bistaratzeko lagungarria izan dakiguke Victor eta Edith Turnerrek *erromesaldia* esaten dioten metafora,

haientzat irudikatutako bidea ez litzateke izango jatorri baten eta xede baten arteko lerroa, elipse baten figura baizik, eta bertan agerian geratzen da (bistaratzen ez bada ere) itzulerako bide bat, esan nahi baita hasierako puntu batera iritea jada desberdinak izanda. Eraginak dituen itzulgarritasun baten aurrean geundeke, hasierara itzultzen zarenean ez baitzara pertsona bera. Zenbait puzzleetan bezala, mugimendua posiblea da posizioz aldatzea ahalbidetzen digun laukitxo¹¹ libre bat dugunean. Beti egongo da okupatu gabeko espazio bat, baina ez du zertan egokia izanik.

Identitate birtual politikoek lehen planora eraman lezakete eraginak dituen itzulgarritasun mota hau. Egia da errealtate birtualarena den aniztasunean ez legokeela online munduaren eta offline munduaren arteko kontziliazio mota bakar bat, baina haien artean berezia da esperientziaz kritiko eta kreatiboak izan daitezkeela. Esan nahi dut medioaren izaera itzulgarria batzuetan izan daitekeela katartikoa, batzuetan ludikoa, subertsiboa, urratzailea, emantzipatzailea, dekonstruktiboa, frustragarria, ezaxola... Izan ere, itzulgarritasuna itxura da, ez dago erabat argi azpikoa guztiz itzulgarria denik.

Horren adibide bat izango litzateke txatean objektibatzen den sexualitatearena. Solasaren enuntziario bera performatibo bihurtu eta izatea eratzten duen lekuan, hain zuzen, izate hori iraupen izugarri gutxikoa izan arren. Txatean gertatzen den pertsonen arteko eraikuntza identitarioaren arintasunak sexuaren eta sexualitatearen dekonstrukziorako testuinguru potentziala sortzen zela pentsarazi zuten. Alabaina, gaiaren inguruko zenbait lan etnografikok¹² justu kontrakoaz ohartarazten dute, alegia, badagoela «plazerak esperimintatzeko modu bat eraikuntza nahiko egonkorretan»¹³, hau da, «sexualitatearen eta familiaren eguneroko bertsioetarako itzulbide bat aurkitzea» helburutzat duten beste sexualitate mota batzuk. Hala, txatean kontziente bagara ere gure identitateen izaera performatiboaz eta bestea egiaztatzean identitate hori eraiki egiten dugula, jolas bat gertatzen da bien performatibotasunen eta desiraren artean («izatea nahi duzuna izan zure eskariak onartzen badituz bakarrik»), eta bertan aukera dekonstruktiboa baztertuta geratzen da, jolasaren mugak, engainua eta iheskortasuna medio; «egiten ari naizen honetatik ez da ezer hedatuko» pentsatuko bagenu bezala; txaten bidezko gure harremanetan gure desirak sublimatzea mugatuko bagina bezala ondoren (gorputzera itzultzean) sozialki garen hori sendotzeko; buru-erregulaziorako mekanismo bat bezala, anonimotasun birtualak eta ziberespazioak sortzen duen testuinguru erreala ekarria. Erabilera identitario hori ez da gutxietsi behar.

Baina orduan zer behar da hemen aipatzen ari garen liminartasun kritiko horretarako, ziberespazioan erreprimetua edo isildutakoa erreflexiboki esplora daitezkeen lurraldera iristeko? Nire ustez galdera

horrek zenbait erantzun izan litzake, baina honako hau izango litzateke bat: eraginak dituen itzulgarritasuna, hau da, interneten egiten ditugun esperimentazioen ezaugarri bihurkaria. Horretantxe zentratzen da neurri handi batean parodia alorreko artista askoren lana, «bestearen» lekuan jartzen dira eta gaituzte, ez enpatia hutsez, bestea «izatera» eramaten gaituen zerbait sakonagoa den aldetik baizik.

Fikzioa: 35. gela

-kaixo, gizona zara, ala emakumea?

-kaixo. Gizona naiz, heterosexuala, zuria, gaztain koloreko ilea, erakargarria, 45 urte, hezia, tipo jatorra. Adiskidetasuna eta sor daitekeena bilatzen dut.

-o.k. Zorte on. Ni gizon heterosexuala naiz, neska baten bila ari naiz. Ciao.

-ez alde egin. Neska ere banaiz.

-konforme. Has gaitezen berriro.

Testuinguru honetan, ziberespazioak badu kezkarritik, bertan bat egiten baitute harrera eta produkzio identitariozko forma desberdinek, eta aniztasun horretan, telebista bezalako beste zenbait mediotan ez bezala, gogoeta egitea bideragarria izango litzateke, gure denboraren eta gure subjektibotasunaren gainean eragina izan -begiluze etsien eta gorputz adostuen paperetik harago joan- ahalko genukeen heinean. Derridak¹⁴ berak, kapitalaren agintearen aurrean sarearen bidez ordenagailu pantailen matxinada bat iradokitzen du. Hau da, agerian uzten du ordenagailu konektatuaren desberdintasuna eta potentzial politikoa telebistakoa bezalako beste pantaila batzuekin alderatuta. Azken hau, zioen behin eta berriz Bourdieuk¹⁵, ez da pentsamenduarentzat mesedegarria, ezeztatu egiten baitu pentsatzeko denbora. Eta hemen beste osagai bat topatzen dugu, sareko esperimentazio identitarioaren inguruko gure azterbidean gakoa dena: gogoetarako denbora, hain urri gertatzen den ondasun hori. Honen haritik, telebistarekiko alderaketak argigarria izaten jarraituko luke. Telebistaren azkartasunari mesede egiten dio hura jasan dezaketen irudi bakarren eragin sinbolikoak, jada gure baitan ideiak sendotzen baitituzte, eta «jakintzat eman» komunikatzen ari direnak ez duela zertan zalantzan jarriak izanik. Irudi horiek ez dagozkio *jakite* bati, ezta oroimen presente eta aktibo bati ere (irakurketari eta sarean nabigatzeko zenbait moduri gehiago dagokio hori), baizik eta emozioei, identifikazioei eta proiektzioei, hau da, iraganari; eta gure kasuan eredu identitarioen errepikapenari. Jada bizi izandakoarekiko lotura horrek sustatu egiten du «aurrez bururatutako ideien» eta klixeen trukea, horiek

baitira abiadura jasaten duten bakarrak, lehendik ere guban zeudelako: topikoak, identitate estereotipatu eta sinbolikoak eratzen dituzten pentsamenduak.

Baina, jakina, ordenagailuaren pantailaren muga fisikoa ez da telebistan sumatzen dugun muga bezain nabarmena gaur egun. Esan nahi baita pantaila bikoiztuta edo biderkatuta egon daitekeela, ez fisikoki bakarrik, funtzionalki baizik, azal berean. Hartara, ia denak bat egiten du -ahalmenez-ordenagailuaren pantailan. Posibilitate horrek arrisku batez ohartarazten du, garenaz eta gure bizitza orobat birtualetan izan gaitezkeenaz pentsamendu kritiko bati atea zabalduko dion gutxieneko jarrera gogoetatsu baterako behar den distantzia galtzeko arriskuaz; gure praktikari zentzu politikoa emateko gai den pentsamendu-denbora bat.

Edonola ere, pantailaren bidezko produkzio eta harrera identitarioaren zirkunstantziak balioestearen beharra ari gara azpimarratzen hemen, zalantzan jartzen zer garen, ez gauza burutu eta behin betiko moduan, prozesu moduan baizik, inoiz itxita egon ez dena eta banaka zein kolektiboki eragin dezakeguna. Baina aldi berean azpimarratzen dugu aldarrikapenak egiteko edo ikusteko gailuek beraiek duten garrantzia eragiteko aukera hori sustatzeko edo ezeztatzeko.

Interneteko urte hauetan askok uste genuen komunikazio horizontalerako medio gisa zituen ezaugarriek bide ematen ziotela besterik gabe ekintza politikoki urratzaileenari gorputzak aldarrikatu, berradierazi edota gainditzeko. Gaur egun medioari eta haren azterketei begiratzean jabetzen gara posibilitate emantzipatzaileen eta sortzaileenaren aurrean, joera, gorputzen askapen labur anonimoa izaten dela, eta horrek kasu askotan are gehiago sendotzen ditu identitate kontserbadoreenak (munduaren bira offline askapenaren ondoren). Hori bai, aukera urratzaileak ez du nahitaez ekartzen praktikara nola eraman zehaztea, baina sarearen potentzial dekonstruktiboak existitzen jarraitzen du eta oraindik ere praktikatzen dute online identitateaz eta «internet osteko» gorputzaz artistikoki eta politikoki gogoeta egiten dutenek. Haien lastrak eta aukerak aztergai bihurtzeak lagundu egiten digu sareko gizarte batean geure aldaketa banako eta kolektiboen agente aktiboak izaten, eta bestetik «geure buruaren alboan»¹⁶ bizitzen, ez bakarrik doluz eta grinaz, Butlerrek iradokitzen duen moduan, arriskuz eta sormenez baizik.

- 1 Butler, J., *Deshacer el género*, Paidós, Barcelona, 2006, 43. o.
- 2 «El rostro habla. La manifestación del rostro es ya un discurso». Levinas, E. *Totalidad e infinito*. Sígueme, Salamanca, 1977, 89. o.
- 3 «Gizakiaren kontzepzio orokorrako bat ari da hemen funtzionatzen, eta kontzepzio horren arabera besteari entregatuak gara lehenengo eta behin; kontzepzio horren arabera hasieratik, norbanakotzea baino lehenagotik ere eta gure gorputz existentziaren kariatz besteari entregatuak izaten gara; horrek sentibera egiten gaitu indarkeriarekiko, baita bestelako harreman sorta batekiko ere (...)». Butler, J. (2006), op. cit.
- 4 Levinas, E., (1977), op. cit.
- 5 Eraikuntza sinboliko hori *Embodiment* kontzeptutik, itzultzen zaila den terminoa bera, batzuetan «gorputze» edo «hezurmamitze» moduan ematen dena, balioetsi behar da. «Foucaultez geroztik eskari saihetsezina zen. Egia esan, teoria sozialari hutsune bat sumatu zitzaion, eta azkenik bete egin zen hutsunea. Gorputza paradigma berri moduan sartu da oldarka, gorputze moduan». Velasco, H. *Cuerpo y Espacio*, Ramón Areces, Madrid, 2007, 52. o. Eraikuntza sozialek zeharkatutako giza gorputzaren eraikuntza sinbolikoa adierazten du *Embodiment* hitzak. Kontzeptua oinordetzan dator *Kultura eta Nortasuna* izeneko eskolatik; haren ideologoentzat kulturaren eta pertsonaren arteko erlazioa (motibazioak eta asmoak) gorputzean hezuramitzen da. Ikuspegi horren arabera diskurtsoa «izateko/munduan egoteko» kultur esperientziatik ulertzen da, eta mundua gorputz bihurtzeko modu bat bezala, gorputz esperientzia kulturaren eta subjektibotasunaren euskarri moduan kokatuta. Ikus: Csordas, T., «Introduction: The Body as Representation and Being in the World», in *Embodiment and Experience. The Existential Ground of Culture and Self*. Cambridge University Press, Cambridge, 1994.
- 6 Barthes, R., *El sistema de la moda y otros escritos*. Paidós, Barcelona, 2003, 418. o.
- 7 «Aurrekari teorikoek (gero aztertuko ditugunak) Maussengana eramaten gaituzte, Freud eta egoera emozional bat egoera fisiko «bihurtzearen» haren kontzeptura (...) eta Lévi-Strauss eta egitura sinbolikoen isomorfitara. Baina are gehiago eramaten gaituzte teoria erretoriko klasikorak, zeina formen eta edukien arteko estilo-korrespondentzien, edo, nahiago baldin bada, literatur estiloaren eta gorputz estiloaren arteko correspondentzien alde agertzen baitzen (...)». Velasco, H. (2007) op. cit., 56. o.
- 8 Benjamin, W., *Historias y relatos*. Península, Barcelona, 1997.
- 9 Turner, V., *La selva de los símbolos*. Siglo XXI, Madrid, 1980, 333. o.
- 10 Turner, V. eta Turner, E., *Image and Pilgrimage in Christian Culture*. Columbia University Press, New York, 1978, 3. o.
- 11 «Identifikazio ugariaren artean ibiltzeko prozesuak berak halako zerrenda huts bat eskatzen du, identitate batetik bestera jauzi egitea posible egiten duena, eta zerrenda huts hori subjektua bera da». Žižek, S., *Lacrimae Rerum. Ensayos sobre cine moderno y ciberespacio*. Debate, Madrid, 2006, 232. o.
- 12 Laura Rival, Don Slater eta Daniel Millar, «Sexo y socialidad. Etnografías comparativas de objetivación sexual» (27-54) in Nieto, J.A., *Antropología de la sexualidad*. Talasa, Madrid, 34. o.
- 13 Ibid.
- 14 Derrida, J. eta Stiegler, B., *Ecografías de la televisión*. Eudeba, Buenos Aires, 1998.
- 15 Bourdieu, P., *Sobre la televisión*. Anagrama, Barcelona, 1997.
- 16 Ibid., 36. o.